

Mazokaren IV. edizioak jarduera paraleloen programa aberastu du, bereziki familia eta hezitzaileei begira

- **Zuzeneko musikaz eta marrazketarekin lotutako jardueraz gain, hitzaldiak eta lantegi programa osoa antolatu da, ilustrazioak hezkuntza-lengoaia gisa duen balioa ardatz nagusizat hartuta**
- **Aurtengo berritasunen artean, familientzako rock kontzertua, ipuin-kontalariak eta diseinatzaile zein marrazkilarientzako “barregrafia” lantegiak**
- **Hautatutako 40 mazokalarien artean, nazioarteko lau egile, zazpi ikasle, ilustrazioaren Euskadi sariaren irabazle bat, eta estatuko ilustrazio-albumen eta komikien arloko sari garrantzitsuen irabazleak daude**

Abenduaren 14, 15 eta 16an egingo da Mazoka Gasteizko marrazki eta ilustrazioaren azokaren IV. edizioa, Montehermoso kulturunean, eta **jarduera paraleloen programa zabala** eskainiko du, hiriko ekitaldi hori irudi grafikoaren eta marrazketaren inguruko kultur aisialdirako aukera izan dadin. Aurtengo berritasunen artean, **familientzako rock kontzertua**, ipuin-kontalariak eta diseinatzaile zein marrazkilarientzako **“barregrafia” lantegiak** ditugu; horien bidez, ilustrazioak tresna hezitzaile gisa duen balioa azpimarratu nahi da bereziki.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren zinegotzi **Nerea Melgosak**, Kultura diputatu **Igone Martínez de Lunak** eta Mazokaren zuzendari eta komunikazio arduradun **Marta C. Dehesak** aurkeztu dute jarduera paraleloen programa. 40 mazokalarien erakusketan lanak erosteko aukera izango da, eta horri askotariko eskaintza gehituko zaio: musika, ipuin-kontalariak, dantza, barreterapiako erakustaldiak, dibuteka, ilustramatoia, zozketak eta lantegiak.

Ezaugarriei dagokienez, Mazoka **bakarra da Euskadin**, eta horri esker urtean behineko erreferente gisa sendotu da ipar aldean; estatu osotik eta Europatik parte hartzeko eskabide ugari jasotzen ditu. Saltokien originaltasuna da gakoetako bat; bertan egileak berak egongo dira, beren teknika zuzenean erakutsiz.

Mazokaren helburua da **mazokalari** hasi berri zein ospetsuen **lana erakustea**; herritarrei marrazkiaren, ilustrazioaren eta, oro har, arte plastikoaren teknikak hurbiltzea, euskarri eta formatu desberdinen bitartez, eta **horrelako lanen eresketa sustatzea**, originalak nahiz erreproduktzioak eta hainbat formatu eta aplikaziotan: papera, oihala, zeramika, serigrafia, apaingarriak, osagarriak, artisautza, etab.

Antolatzaileentzat, aurtengo helburua ez da 2017an gerturatu ziren 8.000 pertsonen kopurua gainditzea, baizik eta baliatzea publikoaren jarrera bere burua grafikoki adierazteko beldurra eta irudiaren bitartez hezteko beldurra kentzeko, eta mazokalarien lana baloratzera hurbildu

daitezen animatzea, harik eta marrazketa beste adierazpide bat dela ohartu arte, adierazpide lagungarria bizitza pertsonal, akademiko eta profesionalean. Eta, batez ere, ilustrazioa handi zein txikientzako beste irakurketa-aukera bat dela (eta ahalmen handikoa gainera) erakutsi, konpartitu eta “konbentzitzea”.

Horregatik, kontzertu eta ilustrazioez gain aurtun programatutako jarduera osagarrien ardatza izango da ilustrazioak hezkuntza-lengoaia gisa duen balioa nabarmentzea, eta berebiziko arreta eskainiko die familia, hezitzaile eta bitartekariei (liburuzain, irakasle, gizarte-langile, administrazioko bitartekari eta abarrei).

La IV edición de Mazoka enriquece su programa de actividades paralelas, dirigiéndolo especialmente a familias y educadores

- A la música en directo y las actividades relacionadas con el dibujo se suma un completo programa de conferencias y talleres con la Ilustración y su valor como lenguaje en la educación como hilo conductor
- Un concierto de rock para familias, cuenta-cuentos y talleres de Risografía para diseñadores y dibujantes, entre las novedades de este año
- Entre las y los 40 mazokalaris seleccionados figuran cuatro internacionales, siete estudiantes, un Premio Euskadi de Ilustración y varios premios relevantes a nivel estatal de álbum ilustrado y el cómic

La IV edición Mazoka, Mercado de Dibujo e Ilustración de Vitoria-Gasteiz que tendrá lugar los días **14, 15 y 16 de diciembre** en el Centro Cultural Montehermoso, contará con un **amplio programa de actividades paralelas** pensado para hacer de este evento de ciudad una opción de ocio cultural en torno a la imagen gráfica y el dibujo. Entre las novedades de esta edición figuran un **concierto de rock para familias**, cuenta-cuentos y **talleres de risografía** para diseñadores y dibujantes, tres ejemplos con los que se quiere subrayar especialmente el valor de la ilustración como herramienta educativa.

La concejala de Empleo y Desarrollo Económico Sostenible, **Nerea Melgosa**, la diputada de Cultura, **Igone Martínez de Luna**, y la directora y responsable de comunicación de Mazoka, **Marta C. Dehesa**, han presentado el programa de actividades paralelas del festival. A la muestra expositiva de 40 mazokalaris se sumará una variada oferta de música, **cuentacuentos, danza, demos de risografía, dibuteka, ilustramatón, sorteos y talleres**, entre otras (*ver dossier adjunto*).

Junto al programa paralelo se ha presentado el cartel, obra de la ilustradora **Naiara Errazti**, que utilizando colores impactantes y un jugando con los trazos ha representado de idea de comer dibujo.

Mazoka es **el único festival de sus características** que se celebra en Euskadi, consolidado como un referente anual en la zona norte, con multitud de solicitudes de participación de todo el Estado y Europa. Los stands, cuya originalidad es la clave, serán atendidos por los y las propias autoras y creadoras, demostrando en directo su técnica.

El objetivo del Mazoka consiste en **mostrar el trabajo de mazokalaris** tanto noveles como consagrados, así como acercar a la ciudadanía a través de diferentes soportes y formatos las técnicas del dibujo, la ilustración y las artes plásticas en general, y **fomentar la adquisición**

de este tipo de obras, originales, reproducciones o aplicaciones en diferentes formatos: papelería, textil, cerámica, serigrafía, decoración, complementos, craft o artesanía etc.

El objetivo añadido de este año para la organización del festival no es tanto superar los 8.000 asistentes de la edición del 2017, sino aprovechar la disposición del público a perder el miedo a expresarse gráficamente, a educar a través de la imagen y acercarse a valorar el trabajo de los mazokalaris, hasta incorporar la práctica del dibujo como un medio más de expresión útil en todos los ámbitos de su vida personal, académica y profesional. Fundamentalmente se aspira a mostrar, compartir y “convencer” de que la ilustración es una opción más (y muy potente) de lectura para grandes y pequeños.

Por ello, las actividades complementarias programadas este año, además de los conciertos e ilustraciones, girarán en torno al valor de la ilustración como lenguaje de educación, con especial foco en las familias, educadores, intermediarios y mediadores (bibliotecarias, profesores, asistentes sociales, interlocutores de la administración etc.)